



**Batzarra:** Ez-ohikoa  
**Deialdia:** Lehena  
**Eguna:** 17/06/2020  
**Ordua:** 13:30  
**Lekua:** Izurtzako Udalbatza aretoa

**Bertaratuak:**

EVA MARIA MUÑOZ IRASUEGI (EH-BILDU)

IKER BALLARIN ZUFIAURRE (EH-BILDU)

ION OTADUY ALDECOA (EH-BILDU)

OHIANE IRASTORZA ALZOLA (EH-BILDU)

MIKEL MARTINEZ BLANCO (EH-BILDU)

AROA GONZALEZ URIARTE (EAJ-PNV)

BAKIRTZE MIOTA SAGASTAGOIA (EAJ-PNV)

**Idazkaria:** Leire Ucin Soraluze

## **Esan-eginak eta erabakiak**

Jarraian, Alkate jaunak, azaroaren 28ko 2568-1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma dagoela egiaztatzeari ekin dio, eta batzordea eratutzat jo da.

Jarraian, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

**Alkateak azaltzen du gai ordenean urgentziazko puntu bat sartze proposatzen dela eta bozkatu behar dela: 2009ko Azaroaren 16koaren osagarria den hirigintza-hitzarmena, -bideak eta sarbideak berrantolatzeke eta Garauntza eta Elizalde herriguneko 2 eta 4 EUAk antolatzeke zenbait alderdi zuzentzeke-, behin betiko onartzea, hala badagokio.**

**Bozkatzan dute eta aho batez onartzen da urgentziazko puntua gai ordenean sartzea.**

Alkateak proposatzen du gai ordenaren 6. puntua 1go puntura pasatzea.

### **1.- Uztailak 12ko hauteskundeak direla eta, mahaiko kideen zozketa.**

Zozketa egiten da eta hau da emaitza:

**Lehendakaria: Jesus Maria Aldape Gerediaga**

**1go Bokala: Juan Luis Zarrabeitia Barrutieta**

**2. Bokala: Laia Ponce Molinero**

**Lehendakariaren 1go ordezkoa: Jose Ignacio Azcoaga Beitia**

**Lehendakariaren 2.ordezkoa: Amaya Zabala Uriarte**

**1go Bokalaren 1go ordezkoa: Iker Albizuri Iturriagaetxebarria**

**1go Bokalaren 2.ordezkoa: Amaia Berasaluce Urretxa**

**2. Bokalaren 1go ordezkoa: Maria Lidia Urkitza Beobide**

**2. Bokalaren 2. ordezkoa: Cristina Mora Dual**

### **2.- Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onartzea.**

Inork ez du ezer esateko aurreko Bilkurari buruzko akta, beraz onartutzat ematen da.

### **3.- Dekretuen berri ematea.**

Inork ez du ezer esateko Dekretuei buruz.

### **4.- Covid-19ak sortutako kalte ekonomikoak leuntzeko Izurtzako mikroenpresa eta profesional autonomoentzat bideratutako dirulaguntzak onartzea, hala badagokio.**

Alkateak hartzen du hitza: azaltzen du proposatzen dela Izurtzako mikroenpresa eta autonomoei Covid-19ak eragindako ondorioak leuntzeko dirulaguntzak eskaintzea: bi kasu ezberdintzen dira: alde batetik, fakturazioan %50 baino gehiagoko murrizketa jasan dutenak eta bestetik, %20tik %50arteko murrizketa

euroko partida bideratuko da.

**Bozkutzen da eta aho batez onartzen da mikroenpresa eta profesional autonomoei bideratutako dirulaguntza.**

**5.- Izurtzako BI-623 errepidean Onda Berde baten ezarpena ahalbidetzen duen proiektuaren onarpena, hala badagokio.**

Bizkaiko Foru Aldundiak Izurtzako herrian trafikoaren inpaktoa leuntzeko Onda berde bat ezartzeko proiektua egin du. Onda berdea ezartzeko urbanizazio lanak Izurtzako Udalak exekutatu ditu, guztira 104.000 eurokoa izanik. Semaforizazioa aldiz, Foru Aldundiaren kargura egingo da.

Bozkutzen dute eta aho batez onartzen da Onda berde bat ezartzeko proiektua garatzea.

**6.- Onda berde baten ezarpenaren proiektua erabilera publikokoa dela deklaratzeko eta ondorioz, jabetza pribatuko lur sailak okupatzearen beharra onartzea, hala badagokio.**

Alkateak azaltzen du Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztu duela Onda Berde baten ezarpenaren proiektua. Proiektu hori gauzatzeko, lurjabe pribatuen lur sailak behar ditu Udalak eta horretarako proiektua erabilera publikokoa deklaratu behar da terreno horiek Izurtzako Udalak bereganatzeko.

Bozkutzen dute eta aho batez onartzen dute Onda berde baten ezarpenaren proiektua erabilera publikokoa dela eta ondorioz, jabetza pribatuko lur sailak okupatzearen beharra.

**7.- 2009ko Azaroaren 16koaren osagarria den hirigintza-hitzarmena, -bideak eta sarbideak berrantolatzeke eta Garauntza eta Elizalde herriguneko 2 eta 4 EUAk antolatzeke zenbait alderdi zuzentzeko , behin betiko onartzea, hala badagokio.**

Idazkariak azaltzen du 2020ko otsailaren 21eko Osoko Bilkuran behin-behineko onarpena eman zitziola hirigintza hitzarmenari. Bizkaiko Boletin Ofizialean argitaratu zen 2020ko martxoaren 4ean, eta 20 egun eman ziren alegazioetarako. Kontutan izanik Martxoaren 14ko alarma egoera, epe administratiboak bertan behera gelditu zirela eta ekainaren 1ean jarri zirela berriro martxan, alegazioetarako epea ekainaren 16raino luzatu zen. Alegaziorik aurkeztu ez denez, Osoko Bilkurari proposatzen zaio behin betiko onarpena ematea hitzarmenari.

**Bozkutzen dute eta hau da emaitza:**

**EH-BILDU: 4 aldeko botu / abstentzio 1**

**EAJ-PNV: 2 aldeko botu**

**Beraz, honako hau onartzen da:**

**LEHENA.** Izurtzako Udalak eta hitzarmen horretan parte hartzen duten lurjabeek Hitzarmen Urbanistikoa sinatzea.

**BIGARRENA.** Bizkaiko Buletin Ofizialean hitzarmenaren testu osoa argitaratzea.

**8.- Galdera eskaerak.**

Ez dago galderarik.

Alkateak komentatzen du ez dela San Juan festa ospatuko, eta abuztuan baloratuko da Rogatiba egitea.

Beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da, eta horren sendespena egiten dut Udaleko idazkari naizen horrek, Alkate andrearen on iritziarekin.

Izurtzan, 2020ko ekainaren 17an.

Idazkaria

O.E. Alkatea

Leire Ucin Soraluze



Eva Maria Muñoz Irasuegui

